



DEBAko UDALA

2017SPLE0009  
9. BILERA: EZ-OHIKOA 2017-10-04

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ez-ohiko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** bederatzigarrena

**Eguna:** 2017/10/04

**Hasiara-ordua:** 19:00

**Amaiera-ordua:** 20:00

**Onarpen-eguna:** 2017/10/26

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

UNAI LEKUBE ARANBERRI

JESUS MENDIZABAL MENDIZABAL (IDAZKARI ORDEA)

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

ELISABETH URTEAGA IÑARRA

### **Bertaratzeak eta irteerak:**

### **Gora-beherak**



DEBAko UDALA

**Aztergaiak:**

1. Adierazpen Instituzionala. Polentzi Markiegiren fusilamenduaren 80.urteurrena.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### **1.- Adierazpen Instituzionala. Polentzi Markiegiren fusilamenduaren 80.urteurrena.**

Adierazpen instituzionalaren testua bozeramaileen batzordearen proposamena da.

Alkateak ezohiko Udalbatzarraren aurkezpena egin du.

Ane Egidazu zinegotziak hitza hartu du.

Unai Lekube zinegotziak ondoko testua irakurri du.

#### **MARKIEGI 80. URTEURRENA**

*Aurten 80 urte betetzen dira gerra bere pil-pilean zegoela gure herrian izan ziren gertakari haietatik.*

*Asko izan ziren, lehen momentutik, errepublikak ematen zizkien eskubideak defendatzeko irmo mantendu zirenak. Horien artean, Debako Udalbatza osatzen zutenak eta herriko funtzionario zirenak, Polentzi Markiegi jeltzalea buru zutelarik.*

*Gu bezela, herritarrek aukeratutako ordezkariak, Debarentzat lanean aritu zirenak. Gure aldetik, beraien ondorengo garen horretan, merezi duten omenaldia jasotzen dute gaurko egun berezi honetan eta diktadurak eragindako erahilketa, eraso eta jazarpentak kondenatzen ditugu eta ezarritako zigorrak altxatzen dizkiegu.*

*Beraien pekatu bakarra ideologia totalitarioen aurka borrokatzea eta beraien herritarrak, edozein ideietakoak izanda ere, defendatzea izan zen. Baina hori ez da pekatua, demokrazia baizik. Herritarrek beraien ordezkariak askatasunez aukeratzea eta hauek herriarengatik lan egitea izan zen beraien ardura.*

*Gerratearen astakeri eta sarraskien aurrean, Markiegi eta gainontzekoek lasaitasuna eta errepublikaren legalitatea mantentzea izan zuten helburu, ideologi desberdinetako herritarrei babesa ematen ahaleginduz. Herritar asko izan ziren gerraren krudelkeriak jipoituak, ezin guztiak hemen izendatu, baina izan dadila ekitaldi hau guztiak merezi duten omenaldia.*

Aimar Lasa zinegotziak adierazpen instituzionalaren harira hitz batzuk esan ditu.

Publikoan dagoen Xabier Lakak, urteurrena dela eta antolatutako ekintzen egitarauaren berri eman du.



DEBAko UDALA

***Erabakia***

Adierazpen instituzionalaren berri izanda, Udalbatzarrak aho batez onartu du, legezko hamahiru kideetatik hamaika bileran daudela:

**Lehenengoa.-** Polentzi Markiegiren fusilamenduaren 80.urteurrena dela eta adierazpen instituzionala onartzea:

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Polentzi Markiegi Alkate izateagatik eta bere ideiak defendatzeagatik fusilatu zuten tropa frankistek, gerra zibila bete-betean zela, orain dela 80 urte.

Gogora ekarri nahi ditugu gertakari haiek eta omenaldi hau egin garai hartan korporazioa osatzen zuten kide guztiei, frankistek eskubide guztiak kendu zizkietelako.

Hauexei, hain zuzen ere:

Polentzi Markiegi (alkatea)

Marcelino Egaña

Miguel M. Beristain

Roman Arostegi

Fernando del Valle

Pedro Gartzia

Jose Martija

Francisco Oñederra

Esteban Antia

Javier Aginagalde

Francisco Osa



## DEBAko UDALA

Korporazio kideei ez ezik, baita fusilatu zituzten gainerako herritarrei ere:

Mariano Agiriano Arana  
Generoso Ibañez Larramendi  
Ramon Ulazia Azkotxa  
Salvador Izagirre Etxaniz  
Andres Esnaola Makatzaga  
Baltasar Aizpurua Izagirre  
Eugenia Galdos "Xapo"  
Tomás Rodríguez Egaña  
Hilario Urain Egaña  
Mariano Arrillaga Arriola  
Anselmo Imaz Arrizabalaga  
Josefa Martina Isasti Uranga  
Joseba Markiegi Olazabal  
Jose Maria Irusta Mugartza

Bestalde, euren eginbeharrak betetzeagatik udal langileak zigortzeko hartutako erabakia, 1937ko urtarrilaren 17ko Junta Nazionalarena, ez dugu ontzat ematen. Beraz, aitortza erakutsi nahi diegu zigortutako udal langile hauei:

- Manuel Etxaniz (mediku titularra)
- Jose Sagarna (argindarraren arduraduna)
- Eduardo Barrera (botikaria)
- Gumersindo Andonegi eta Nikolas Unanue (argindar zentralaren arduradunak)

Baita, alde egiteagatik kaleratutako beste hauei ere:

- Jaime Lonbide (Itziarko medikua)
- Antonio Urkaregi (argi eta uraren arduraduna)
- Juan Díaz (udaltzaina)
- Antonio Azkoitia eta Marcos Etxeberria (udaltzainak)



## DEBAko UDALA

Azkenik, gertatutakoak gogoratu eta gaitzetsi nahi ditugu omenaldi honekin, euren ideiak defendatzeagatik horrelakorik berriro inori gerta ez dakion. Horrekin batera, ez ditugu ahaztu nahi, gaur egun, hainbat gerra eta miseriatik ihesean dabiltzan milaka errefuxiatuak; horiek ere, orain dela laurogei urte gureek izan zuten harreraren adinakoa behintzat merezi dute eta.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2017ko urriaren 4an

